



Ajangizko Udala

AJANGIZKO UDALAK 2008KO ABENDUAREN 22AN OSPATUTAKO OHIKO BILKURAREN AKTA.-

Batzarreratuak:

Alkatea:

Koldo Carbonell Oihartzabal jauna

Zinegotziak:

*Angel Luis Uribarri Gondra jauna
Maria Angeles Goikolea Uriarte andrea
Beñat Erezuma Arisketa
Jasone Bernaola Aurrekoetxea
Roman Etxeandia Zabala*

Idazkaria:

Saioa Pineda Aranburu andrea

Ajangizko Udaletxean, 2008ko abenduaren 22an arratsaldeko 20:00etan eta horretarako deidaldia egin ondoren, Udal Osoa biltzen da ohiko bilera ospatzeko, goian aipatutako zinegotziekin.

Esandako orduan, Alkate Presidenteak gutxienezko kopurua dagoela ikusita, hasiera ematen dio bilerari.

1.- AZKEN BILERAKO AKTA IRAKURRI ETA ONEZTEA, BEHAR BADA.-

2008ko urriaren 23an izandako ohiko bileraren akta hautespenerako jarrita, bertaratutako zinegotzi guztien botoekin, onartuta geratzen da.

2.- ALKATETZAK EMANDAKO DEKRETUEN BERRI EMATE ETA ONEZPENA, BEHAR BADA.-

- **Azaroaren 25eko 2008/108 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Polikiroldegiko kuotaren ordainketarako aurkeztutako laguntza eskaerak onartzea eta Gernika-Lumoko Udal Polikiroldegiko kuotaren erroldatu eta erroldatu gabeen arteko diferentzia ordaintzeko aginduz.
- **Azaroaren 25eko 2008/109 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** F.A.E.ri Mendieta auzoko Agarre baserria eraberritu, kontsolidatu eta handitzeko baimena.
- **Azaroaren 25eko 2008/110 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** M.Z.A.ri Ajangizko landalurreko 2. Poligonoko 23. Lurzatia harri birekin ixteko baimena.



Ajangizko Udala

- **Azaroaren 25eko 2008/111 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Bizkailur S.A. enpresari BI-4224 errepidean biribilgune bat egiteko baimena.
- **Azaroaren 28ko 2008/112 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** V.D.F.ri Astobieta Txiki etxean kaldera kokagunez aldatzeko baimena ematea.
- **Azaroaren 28ko 2008/113 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Udal ibilgailu berriaren erosketa.
- **Abenduaren 3ko 2008/114 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** JOMA enpresari Ajangizen jarri beharreko postontzien hirnidura agintzea eta Postontziak jartzeko lanak CONSTRUCCIONES MALAXETXEBARRIA ANAIK S.L. enpresari esleitzea.
- **Abenduaren 5eko 2007/115 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Gernika-Lumoko Allende Salazar Ikastetxeko guraso elkarteak abenduaren 21erako antolatu duen hamaiketakorako Kanpantxuko frontoia eta Udaletxeko mahaiak erabiltzeko baimena.
- **Abenduaren 5eko 2008/116 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** Ajangizko emakume taldeari 270,00 euroko laguntza ematea.
- **Abenduaren 10eko 2007/117 ZENBAKIDUN ALKATE DEKRETUA.-** F.U.E.k aurkeztutako eskaera onartu eta BI-7639-X ibilgailuaren 2008 ureteko trakzio mekanikoko ibilgailuen gaineko zerga bueltatzea.

3.- MAIER-MENDIETA LANDABIDEA EGOKITZEKO LANEN 1. FASEKO 3. ZIURTAGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Ajangizko Udalak 2008ko abuztuaren 19an ospatutako batzarrean, besteak beste, Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanak (I. Fasea) CONSTRUCCIONES INTXAUSTI S.A., enpresari esleitzea onartu zuen, guztira 163.203,16 euroko kostuarekin.

2008ko urriaren 23an ospatutako osoko bilkuran, 82.930,07 euroko lanen 1. Ziurtagiria eta Construcciones Intrxausti S.A.k aurkeztutako A08-181 faktura onartu ziren.

2008ko azaroaren 27an ospatutako osoko bilkuran, 42.221,37 euroko lanen 2. Ziurtagiria eta Construcciones Intxausti S.A.k aurkeztutako A08-212 faktura onartu ziren.

Osoko bilkura berean 41.384,97 euro gehiagoko kostua onartu zen, alde batetik neurketen igoeragatik eta bestetik obra unitate berriek eraginda.

Lanen zuzendaria den Carlos Ortiz de Zarate jaunak, lanen 3. Ziurtagiria aurkeztu du 37.856,15 euroko kostuarekin. Ziurtagiriari, Construcciones Intxausti S.A. enpresari 37.856,15 euroko kostu orokorrarekin aurkeztutako 2008ko azaroaren 11ko A08-246 faktura erantzen zaio.



Ajangizko Udala

Aurkeztutako dokumentazioa kontutan hartuta, Udal Osoko Bilkurak aho batez ebazten du:

1.- Maier-Mendieta landabidea egokitzeko lanen I. faseko hirugarren ziurtagiria onartzea, 37.856,15 euroko kostu orokorrarekin.

2.- Construcciones Intxausti S.A. enpresak aurkeztutako 37.856,15 euroko kopuru orokorra duen 2008ko azaroaren 28ko A08-246 faktura onartzea.

3.- Ebazpen honen berri interesdunei ematea jakitun izan daitezen eta dagozkien ondorioak sortu ditzan.

4.- AJANGIZKO HIRI ANTOLAKETARAKO PLAN OROKORRA BURUTU ETA TRAMITATZEKO ZERBITZUA PROZEDURA MURRIZTUZ KONTRATATZEKO PROZEDURAREN HASIERA ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN AGIRIAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, gaur egun indarrean dirauden Arau Sorosgarriak ordezkaturiko duten Ajangizko Hiri antolaketarako Plan Orokorra burutu eta tramitatzeko zerbitzuaren kontratazioarako prozeduraren berri emanten du. Kontratazio honen beharrezana, Ajangizko gaur eguneko hirigintza egoera legedi berriei egokitu beharra eta udalerrinari gaur egun jadanik agortua dagoen hirigintza eremu berri bat emateko beharrezanek osatzen dute.

Ajangizko Hiri antolaketarako Plan Orokorra burutu eta tramitatzeko zerbitzuaren kontratazioa arautuko duen baldintza administratibo partikularren plegua ere aurkezten du. Agiri horrek lizitazioaren oinarriko prezio modura 203.448,27 euro gehi BEZa jasotzen du.

Aurkeztutako dokumentazioa ikusita eta zehaztapidetza osatzen duten txostenak aztertuta, Udal Osoko bilkura osatzen duten bertaratutako zinegotziek aho batez **ADOSTEN DUTE:**

Lehenengo.- Ajangizko Hiri antolaketarako Plan Orokorra burutu eta tramitatzeko zerbitzua prozedura murriztuz kontratatzeke espediente, 236.000 euroko (BEZ barne) gastua eta kontratua arautuko duen Baldintza administratibo partikularren agiria onartzea.

Bigarren.- Esleipen prozeduraren hasiera agintzea.

Hirugarren.- Zehaztapidetza honetako aktuazioen balioa, 2009ko aurrekontuan kreditua izatearen baldintzapean jartzea.

5.- AJANGIZEN ESTALITAKO FRONTOI BERRIA ERAIKITZEKO PROIEKTUAREN ERREDAKZIORAKO KONTRATUA ESLEITZEKO BURUTUKO DEN PROIEKTUEN LEHIAKETA MURRIZTUA ARAUTUKO DUTEN BALDINTZA ADMINISTRATIBO PARTIKULARREN ETA TEKNIKOEN AGIRIAK ONARTZEA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak, Mendieta auzoan estalitako frontoi bat eraikitzeke proiektua aurrera eramanez ahal izateko, erabilera ororako izango den espazioaren sorrera zehazteke proiektuen



Ajangizko Udala

lehiaketa bat proposatu dela aipatzen du. Horretarako baldintza administratibo partikularren plegua eta baldintza teknikoen plegua aurkezten ditu, bertan Udalak eraikuntzaren berezitasunei buruz zenbait puntu zehaztu dituela aipatuz: altuerak, estetika, bolumena...

Lehiaketa honek hiru saridun izango lituzke: lehenengoak proiektuaren erredakzioa eta kasua bada lanen zuzendaritza lortuko luke; bigarrenak 2.000 euroko saria dirutan eta hirugarrenak 1.500 euroko saria dirutan.

Aurkeztutako dokumentazioa eta espedientea osatzen duten dokumentu eta txostenetan oinarrituta, Udal Osoko bilkurak, bertaratutako aho batez, ADOSTEN DU:

Lehenengo.- Ajangizen frontoi estali berria eraikitzeko, helburu eta kalitate arkitektonikoaren arabera proposamenik onuradunena kontratatzeko espedientea onartzea.

Bigarren.- Gastua onartzea.

Hirugarren.- Esleipen prozeduraren hasiera agintzea.

Laugarren.- Zehaztapidetza honetako aktuzioen balioa, 2009ko aurrekontuan kreditua izatearen baldintzapean jartzea.

6.- AJANGIZKO UDALAREN IV. PLANGINTZALDIRAKO (2008-2012) UDAL BARRUKO ERABILERA PLANAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak Ajangizko Udalaren IV. Plangintzaldirako (2008-2012) udal barruko erabilera plana aurkeztuta, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez onartu du.

7.- AJANGIZEN EUSKARA BIZIBERRITZEKO PLAN NAGUSIA (EBPN). 2009-2010 PLAN ESTRATEGIKOAREN ONARPENA, BEHAR BADA.-

Alkate Udalburuak Ajangizen Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN). 2009,2010 Plan estrategikoa aurkeztuta, Udal Osoko Bilkurak, batzartutako zinegotzien aho batez onartu du.

8.- ERREGU ETA GALDERAK.-

- Alkate Udalburuak Zapaterok onartu duen azaroaren 28ko 9/2008 Erret Dekretuaren berri ematen du. Dekretu honetan tokiko inbertsioak egiteko dirulaguntza arautzen da, Ajangizko udalerrirako 78.000 € aurreikusiz. Proiektuak aurkezteko epea urtarrilaren 24rarte zabalik dago, eta aurkeztu behar diren proiektuak berehala exekutatzeko modukoak izan behar dute.

Dekretua aztertuta eta Kanpantxu auzoan dagoen argindar arazoa kontutan izanda, Kanpantxurako transformadore berria jartzeko proiektua aurkeztea pentsatu duela azaltzen du Alkateak. Horretarako jadanik Elecnor enpresak egin duen proiektua Carlos Ortiz de Zarate teknikari jaunak egiten dituen zehaztapenekin aurkeztea pentsatu da. Argindarra herri bidearen erditik joango litzateke eta transformadora Garatxenaren terrenotan jarriko da, berak horretarako baimena eman



Ajangizko Udala

baitu. Lan hori egitearekin batera bide osoa asfaltatu eta ahal bada farolak jartzea da asmoa. Dena den gaia aztertzen dabilta teknikoak, eta aurrekontuaren arabera erabakiko da zer burutu daitekeen.

Etxeandia jaunak proiektu hau udalak ordaintzen badu prezedente bat sortuko dela aipatzen du, beste auzoek ere udalari eskatuko baitiote argindarra jartzea.

- Kultur Etxeko dinamizatzailerak kontratatzeko egindako deialdian bi persona aurkeztu dira aipatzen du Alkatea. Jasotako proposamenak aztertzeko, datorren urtarrilaren 8an arratsaldeko 7etan epaimahaia batzea onartzen da.
- Alkateak udal ibilgailu zaharraren subastaren berri ematen du. Hiru oferta egon zirela aipatzen du eta horietatik azkenik 800,00 euro ordaintu dituela esleituak.
- Busturialdeko Uren Partzuergoak aginduta Bidein ingeniariak egin duen lanaren berri ematen dute Alkateak eta Angel Luis Uribarri jaunak. Ingenieria honek egindako aurreproiektuan, Ajangizko saneamendu sarea Urdaibaiko kolektore orokorrarekin lotzeko faseak azaltzen dira. Lehenengo faseak Mendieta inguru osoa hartuko luke, eta guztira 874.500 euroko aurrekontua dauka (BEZa kanpo). Partzuergoko gerentearekin egindako batzarrean, orain proiektua burutuko dela aipatu zen, eta proiektu hori aurkezten dutenean jendaurrean jartzeko asmoa duela aipatzen du Alkateak.
- Plan Orokorraren erredakzioa dela eta, Roman Etxeandia jaunak auzo desberdinekin batzarrak egitea komeniko zela aipatzen du, bakoitzak dituen beharrianak aurretiaz jakiteko. Etxeandia jaunak Ispizua auzoko beharrianak aztertu dituela aipatzen du, baina gauza bera beste auzoekin egin beharko litzateke.

Uribarri jaunak horretarako arazorik ez dagoela aipatzen du, erredakzio prozeduran zehar talde eta herritar desberdinen keza eta ikuspuntuak jasotzeko neurriak hartuko baitira.

- Alkateak Maier enpresari bidali zaion instalazio eta eraikuntzen legalizazioari buruzko gutunaren berri ematen du. Urbanizazio proiektua onartzean Maierrekin egindako batzarrean, Maierrek proiektuak aurkeztu ahala legalizazio prozedura martxan jartzeko akordioa hartu zen. Halere denbora pasa eta inolako proiekturik aurkeztu ez denez, Udalak ofizioz prozedura hori hastea erabaki du eta horretarako udalaren izenean Itxaropena Intxausti arkitektoa Maierre inspektzioan joango da. Erabaki honen berri eman zaio Maierri gutun horretan, udal arkitektoari laguntza eman diezaiotela eskatuz.

Eta beste aztergairik ez dagoenez, batzarra bukatutzat ematen da gaueko bederatzi terdiak direnean, eta honen sendespena egiten dut Udaleko bitarteko Idazkari naizen aldetik, Alkate Lehendakariaren oniritziarekin.

ALKATEA

BITARTEKO IDAZKARIA